



723 ZB.KO DEKRETUA.



Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko abuztuak 24an

2009ko uztailaren 27an Udal honetako Alkate-Lehendakari jaunak emandako 683 zk.ko Dekretu bidez Altzibarko ALT-4 eremuko Urbanizazio Proiektua idazteko zerbitzua ESTUDIO URGARI,S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin-betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantzaren eta zerga betebeharraren eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikuluen 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin-betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean ESTUDIO URGARI,S.L. enpresak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituenek, Altzibarko ALT-4 eremuko Urbanizazio Proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua ESTUDIO URGARI,S.L. enpresari behin-betiko esleitzea 58.000 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 12 asteko eguneko egikaritze epearekin.

Enrike Lekuona Irastorza Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.